



ALEA

arabako aldizkaria



DRONEAK
GORANTZA DOAZEN
AUKERA BERRIAK

Hirian, txakurra beti lotuta

ZURE TXAKURRA, ZURE ARDURA

Txakurrak aske ibiltzeko
eremuak bilatu



www.vitoria-gasteiz.org





ALEA 214

2019-11-08 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ASOGGETTI, UNSPLASH

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Droneak, perspektiba berrien bila.
- 8 **Protagonista.** Asier Etxenike, soziologoa.
- 12 **Iritzia.** Itziar Rekalde, 'Truko gabeko tratuak'.
- 13 **Iritzia.** Txema Ramirez de la Piscina, 'Herioaren hiria'.
- 14 **Sarean.** #SaldaBadago
- 15 **Iruditan.** Amurriotik mundura euskara darabate.
- 16 **Gizarte.** Koldo Alijostes, 'Oroimenaren harra' ekimeneko sustatzailea.
- 18 **Gizarte.** Sinadurak batzen hasi dira Aguaque babesteko.
- 19 **Gizarte.** Otsoen erasoak zabaltzen ari dira.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Euskara.** Gasteiz, euskararen hiriburu.
- 24 **Kultura.** Edurne Azkarate, aktorea.
- 25 **Sexualitatea.** Emaize, 'PrEP pirula'.
- 26 **Bertsolaritza.** Bertxoko berriz ere martxan.
- 28 **Denbora-pasak eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak


ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Itziar Rekalde, Txema Ramirez de la Piscina,
Emaize eta Arabako Bertsosale Elkarteak.



Zerutik hartzen den perspektiba berriaren bila


Teknologia aurreratu ahala, droneak gero eta eskuragarriagoak bihurtu dira, duela urte batzuk imajinaezinak ziren ahalmenekin batera, gainera. Irudi eta bideo ikusgarriak ez ezik, beste hainbat zereginetan hasi dira erabiltzen. Dena dela, zaletuek uste dute horien erabilera arautzeko martxan jarri den araudia oso murriztailea dela. Testua: **Juanma Gallego**. Argazkiak: **Eduardo Canterla**.



Hemendik bi urtera baliteke aurrenekoz Lurra ez den beste planeta batean drone bat agertzea. Hau ez da ez merke saltzen den hauts informatibo horietako bat, datorren urteko uztailean martxan jarriko den Mars 2020 espedizioaren parte bat baizik. Hemendik bost urtera edo, are harrigarriagoa den beste misio bat abiatuko du NASAK, kasu honetan Saturnoko Titan ilargira. Dena ondo bidean, *Dragonfly* izeneko droneak Lurrarekin antza izugarria duen baina izoztuta dagoen mundu zoragarri bat erakutsiko digu, duela 50 urte gizaki bat Ilargian ikusi genuen modu berdinean.

Azken urteetan helikoptero txiki hauek eragin duten iraultzaren adierazle dira misio horiek, baina askoz gertuago ere gertatzen ari dira iraultza txikiak: produktuen banaketan, ikus-entzunezkoetan, segurtasunean edota ikerketan. Ohi bezala, aukerak eta arriskuak azalduko dira, lehen aizkora sortu zen unetik bertatik teknologia bi alde horiekin hornituta datorrelako.

Zaletuen alorrera iritsi da teknologia hau, eta gero eta ohikoagoa da tramankulu hegalarri txiki horiek zeruan ikustea. Eduardo Canterla audioarra da zaletu horietako bat, eta grinaz hitz egiten du gaiari buruz. Laudiotik gertu dagoen mendi batera joan eta autoaren maletategitik atera du haren tramankulu txikia. Errotore



"DENBORALDI BATEZ, ASKATASUNAREN ZAPOREA DASTATU DUGU. TAMALEZ, GAUZAK ALDATU DIRA"

EDUARDO CANTERLA

txikiak zabaldu eta di-da batean martxan jarri da eulitzarra, drone izenaren jatorrian dagoen soinu berezi horrekin batera. Gailua maneiatzeko sakelako telefonoa hartu eta egokigailu berezi batean txertatu du. Teknologiaren mirariak, telefonoa dronea kontrolatzeko urrutiko agintea bihurtu da. Bertan ikusten da dronea GPS koordenadak hartzen ari dela. Modu horretan jakingo du nora bueltatu behar den, bueltatu behar denean: agindu hori jasotzen duenean edo urrutiko agintearekiko kontaktua galtzen duenean, hain justu.

Beren-beregi mugatuak

Zerura doa gailua, baina ez urrunegi. Ez harago ezin duelako joan, gehiegi urruntzea debekatuta dagoelako baizik. "Gaur egungo araudiaren arabera, 20 metroko altuera hartu ahal dugu, eta 120 metroko distantziara joan, beti ere kontaktu bisuala mantenduta". Gailuak dituen aukerak, baina, oso bestelakoak dira, eta teoriarik zortzi kilometroko distantziara urrun daiteke, ordu erdiko autonomiarekin.

Horiek ez dira orain legeak ezartzen dituen muga bakarrak. Badira beste eskakizun asko: aireportuetatik eta beste hainbat puntutatik zortzi kilometroko distantzia mantendu behar da, gaur ezin daiteke hegan egin, ezta hiriguneen gainean ere. "Praktikan, eta legeari zorrotz eta hitzez hitz begiratzen badiozu, Espainia osoan oso toki zehatz konkretuetan besterik ezin da hegan egin", kexu mintzo da Canterla. Azaldu duenez, zaletu gehienek hegaldiak arautzearen beharra ikusten dute, baina gaur egungo eskakizunak gehiegizkotzat jotzen dituzte. "Denboraldi batez, hainbat irudi ikusgarri hartzeko pribilegioa izan dugu. Nolabait esateko, askatasunaren zaporea dastatzeko modua izan dugu, baina, tamalez, gauzak jada ez dira horrela", nabarmendu du. "Nire argazkietako batzuk errepikaezinak dira, horiek araudia ez zegoenean eginak direlako. Gaur egun, ezin dut halako irudirik hartu". Zaletuak babestu du debekatuta dauden leku asko ez direla arriskutsuak. "Beste gauza guztietan bezala, hemen sena erabiltzea da kontua. Argi dago ez zarela hurbilduko helikoptero batera, eta ez duzula dronea jendearengana hurbilduko".

Gaur egun hegal egiten duten hegazkin txiki askok dituzten segurtasun neurriak droneenak dituztenak baino kaskarragoak direla argudiatu du zaletuak. Sentsoreak, adibidez. Hori erakusteko, guregana hurbildu du gailua. Hurbildu bai, baina pare bat metrora iritsita geldirik geratu da aparailua, sentsoreek eragozpen bat atzeman dutelako. Neurri batean, Isaac Asimovek zehaztu zituen robotikaren lehen legeari kasu egin dio aurrean dugun droneak. "Robot batek ezin diezaioke gizaki bati kalterik egin, ezta gizakiak kalterik jasan dezan utzi edo onartu ere".

Momentuz lege horretako lehen zatia da gailuak betetzen duena. Bigarrena, hau da, gizakiek kalterik ez jasotzeko baldintza, ezin du bete, autonomoa eta adimentsua ez delako. Baina lege hori bere osotasunean betetzeko filosofian lagungarriak izan daitezke droneak. "Orain larrialdietan droneak erabiltzeko lizentziak eskaintzen ari dira", azaldu du Canterlak. "Pentsa zenbat aukera



irekitzen diren mendian edo basoetan galdutako jendea aurkitzen laguntzeko". Erraza da irudikatzea herri baten inguruan galdutako norbaiten bila ari den halako jende partida bat, bai. Orain irudikatu bilaketa hori droneekin. Argiak eta *zoom*-dun kamerak zein sentsoreak dituzten droneez osatutako erreskate sorta bat, hain zuzen. "Pentsa zein modu azkarrean eta errazean miatu daitezkeen zirrikitu guztiak", iradoki du Carterlak. Harago joanda, zenbait dronek sentsore termikoak dituztela azaldu du, eta landarediaren artean botata edo elur-jausi baten ondorioz elurpean dauden gorputzak aurkitzeko gako izan litezke.

Louis van Gaal entrenatzaileak bere garaian bota zuen "beti negatibo, inoiz ez positibo" horren haritik, munduari samintasunez begiratzen dioteneke ere irudikatu ahal dute drone sorta hori armaturik, izututa eta korrika ari diren gizakien atzetik. "Bai, teknologiarekin beti gertatza da", azaldu du zaletuak. "Mundu honetan badira autoak eta badira tankeak, baina autoei buruz hizketan ari garenean ez ditugu tankeekin alderatzen".

Hedabide askotan droneei buruzko irudi negatibo bat zabaltzen ari dela uste du Carterlak, eta zaletuek irudi horren ondorioak lehen eskutik bizitzen ari direla dio. "Jarri zaigun irudi ia kriminala ez da bidezkoa. Tira, beti egongo da ganorabakoren bat, eta autobidean orduko 240 kilometrora doazenak ere badira, baino ez ditugu gidari guztiak epaitzen zoro batzuek egindakoagatik". Sare sozialetan ere iruzurretan oinarritako irudiak zabaltzen ari direla ohartarazi du; hegazkinen kontra jo duten droneen irudi faltsuak, esaterako. "Horrekin badago jendea paranoia hartu duena. Oroitzen naiz behin Nerbioioko ur-jauzian andre bat etorri zitzaidala, oso aztoratuta, dronearekin ari nintzelako, esanez ez zuela nahi bere burua irudietan agertzea. Alboan jende pila zituen, sakelakoarekin argazkiak hartzen. Irudi horietan bere aurpegia lasai asko agertzekoa zen, baina haren kezka bakarra zen zeruan distantzia handira zegoen nire droneak hartutako irudietan bera agertzea. Zoratzekoa da".

Salaketak

Kontua ez da mugatzen eztabaidatzera hegan ari den teknologia puska baten atzean *Star Wars*-en heriotzaren izarra ikusten dutenekin. Instagramen edo Youtuben droneekin ateratako irudien bila modu aktiboan ari den jendea badagoela azaldu du Carterlak. "Saiatzen dira irudi horietan debekatuta dauden tokiak aurkitzen, eta egileak salatzen. Ez da broma. Nire lagun bati 890 euroko isuna iritsi berri zaio, debekatuta dagoen toki batean hegan egiteagatik. Eta salaketa horietan ari diren partikularrak daudela pentsatzea ere! Hortik paranoia. Jendeak ez du hori propio egiten, esaterako, errepidean orduko 130 kilometrora doan norbait ikusten badu". Gauzak horrela, zuhurtzia askorekin ari dira zaletuak irudiak zabaltzerakoan. ALEAk hori egiaztatu ahal izan du hainbat zaletuekin kontaktuan jarri denean, eta baita horretan ari diren profesionalekin ere. Hortaz, beharrezkoa da oharra: hemen agertutako irudiak droneei buruzko araudia martxan jarri baino lehen ateratakoak dira. Dakigula, inor ez da zauritua izan. Badaezpada ere. ■■■



"Bozekin baino, politika egiteko modu batekin dago nekea"

ASIER ETXENIKE SOZIOLOGOA

Espainiako Gorteetarako hauteskunde kanpainan Arabako interesak defendatzeko zailtasunak daudela gogoratu du Asier Etxenike soziologoak, are zailagoa muturreko egoera bizi duenean estatuak. Inkesten arabera, halere, "erabakigarri" izan daitezke bertako diputatuak gobernua osatu eta gerora baldintzatzeko. Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkia: **Aritz Martinez de Luna**.

Blokeo egoeratik irteteko ez dira nahikoa izango igandeko hauteskundeak. Asier Etxenikeren (Orereta, 1979) ustez, inkestek aurreikusitakoa betetzen bada, eta sorpresa handirik ez bada, bere horretan mantenduko da Espainiako Gobernua osatzeko ezintasuna, eta "politikarien ardura" izango da datuak onartu eta desblokeatzea. "PSOE eta Podemos arteko gobernua are aukera gutxiagorekin ikusten da orain, eta beste formula bat bilatu beharko dute; PPren abstentzioarekin, esaterako".

Hauteskunde errepikapena, nekea, haserre... Estatu mailan, nola irudikatzen dituzu azaroaren 11ko emaitzak? Nola islatu daiteke giro hori?

Zalantza daukat. Hasiera batean halako neke bat sumatzen nuen, eta abstentzioarekin soilik aldaketa nabarmen bat egon zitekeela uste nuen. Baina azkenaldian ez dakit benetan hori nabarituko den edo nabarituko diren beste faktore batzuk; boto aldaketa batzuk, baina ez hainbeste abstentzioa bera.

Haserreak mugiaraziko du botoa, beharbada? Muturreko aukeretara gehiago?

Estatuan bai, ziurrenik. Hauteskunde errepikapenarekin eta horretan aktore nagusiak izan diren PSOE eta Podemosekin egongo da nolabaiteko kontu-hartze bat, baina baita Kataluniarekin estatuan pizten den sentimendu nazionalista espainiar horrekin. Alde horretatik, inkesten arabera VOX behera zihoanean gora doa berriz ere, eta aurrekoetan baino emaitza hobekin.

VOXek, beraz, emaitza ona ateratzen dezake neke horretatik?

Ez dakit hainbeste den nekea. Izan ere, Ciudadanos fenomenoaren eraginez, ematen du erabat hustuta helduko dela, eta ikustekoa izango da zer boto-aldaketa izango den VOXerako bidean. Ciudadanos ez da izan aktore esanguratsu bat gobernurako negoziazioetan, eta aldi behera doa, eta, aldi berean, Kataluniako eztabaidan gakoak izan zen eta hauteskunde autonomikoak irabazi zituen, baina orain hortik kanpo kokatzen da eta ez du berenagatzen hori guztia. Egia esan, zaila egiten zait Espainiako soziologia azaltzea, eta ez dakit noraino den orain komunikabide handien babes falta bat Ciudadanosen proiektuari. Nahasketa bat dago elementu horien



artean; nekea dago, baina ez bozkatu behar delako, politika egiteko modu batekin baizik, eta horri Katalunia Espainian sortzen ari dena gehitu behar zaio. Faktore horiek nahastuta, baliteke muturretara jotzea.

Oso nabarmena da Ciudadanosen jaitsiera, inkesta guztien arabera...

Afera oso mediatikoa izan da; komunikabide zehatz batzuek eta IBEX 35ak babestutakoa. Egitura politiko aldetik, Euskal Herrian ez daukate gorputzik, baina esango nuke kanpoan ere ez dutela. Uste dut funtzio bat bete zutela Podemos fenomenoari aurre egiteko orduan, baina hori igarota eta Kataluniako eztabaidan bereziki PSOEren diskurtsuak indarra hartu duen momentuan, baliogabetuta geratu da.


Gobernua osatu eta egoera desblokeatzea izango da gakoa igandetik aurrera. Zer aukera ikusten dituzu?

Oso konplikatu. Hauteskunde hauek deitu baldin badituzte hori konpontzeko, oso zaila ikusten dut. Emaitzei dagokienez, ikusiko dugu inkestek esaten dutena betetzen den... Azken finean zazpi hilabete pasa dira aurreko hauteskundeetatik eta ordutik hona egon daitezkeen aldaketa guztiak soilik inkesten datuetatik dauzkagu; horrek ere

erakusten du inkestek zer balio daukaten errealitate politikoa sortzeko, hipotesi batzuetatik soilik ari baikara... Hori aintzat hartuta, eta igandean sorpresarik hartzen ez badugu, blokeo egoera hori bere horretan mantenduko da, eta, beraz, politikoei tokatzen zaie benetan beraien ardurak hartu, asumitu eta desblokeatzea, ez herritarren esku jarrita. Aldaketa nabarmen bat dago: PSOE eta Podemos arteko gobernu aukera hori orain are aukera gutxiagorekin ikusten da, eta ez zenbakietan, baizik eta jarrera politikoetan. Hori alde batera uzten bada, PPren aldetik abstentzioa lortu edo halako formularen bat bilatu beharko dute.

Gobernua osatu arren, Katalunia dagoen moduan, gobernagarria da estatua?

Nik uste hori izan dela gako nagusietako bat Podemosekin gobernurik ez egoteko momentu honetan. Podemosek gutxieneko batzuk jarri zituen mahaiaren gainean, eta PSOEren aldetik eta orokorrean estatu faktiko horren aldetik hori ez da aukera bat; katalanen eskaerei bidea ez ematearekin batera, elkarrizketa bera ere ukatu egiten da, eta beraz hor agortzen da Podemosen aukera. Hortik aurrera, azkenean katalanek zer



Apirilak 28ko hauteskundeak Araban

Herritar kopurua: **328.868**
 Hautesle erolda: **257.797**
 Boto-emalleak guztira: **179.186** (% 69,51)
 Abstentzioa: **78.611** (% 30,49)
 Boto nuloak: **1.820** (% 1,02)
 Boto zuriak: **1.075** (% 0,61)
 Atzerrian bizi diren egoiliarren erolda: **6.893**
 Atzerrian bizi diren boto-emalleak: **572** (% 8,30)

gaitasun duten indarra egiteko eta prozesu hau aurrera eramateko, eta Espainiaren aldetik horren aurrean zer jarrera hartzen den... gatazka terminoetan bideratuko da kontua, duda gabe.

Gogortu egin du jarrera Sanchezek.

Mozio zentsura aurrera atera zenean, Sanchez elkarrizketaren aldekoa zen, urrats batzuk edo proposamen batzuk garatu ziren, baina oraingo diskurtsoa erabat aurkakoa da. Horrek zalantzan jartzen dit, niri behintzat, aurrekoa ere zein punturaino zen momentuak behartutako pose bat eta oraingoan indartsuago sentitzen den bere posizioa aurrera ateratzeko.

Eskuin muturrak irentsi du dena?

Ez dakit irentsi duen edo benetan beste

"DEBATEAN BEREZIKI IZUTU NAU VOX-EN MARKOAREN GAINEAN APENAS DAGOELA ERANTZUNIK"

"ZALANTZA DAUKAT MAROTOK ERAMAN ZUEN BABESA HAUTAGAI BERRIAK ERAMAN DEZAKEEN"

alderdiei askeago uzten dien ateratzen beraien izaera edo politika autoritario horiek mahai gainean. Lotsarik gabe edo beste posizio batean. Hautagaien debatean bereziki gehien harritu edo izutu nauena da VOXek markatutako markoen gainean apenas dagoela erantzunik; egoera normalizatzearekin batera, irizpide batzuk, neurri batzuk, jarrera batzuk asumitzea...

Beharbada, VOXen jokoan ez sartzeko aukera egin dute debatean.

Izan daiteke jokoan ez emateko, baina, aldi berean, uste dut ahul sentitzen direla diskurtso horren aurrean, eta ez dutela ikusten benetan nola egin aurre argudioekin horri guztiari, azken batean beraiek ere VOXek jartzen dien marko horren barruan ez daudelako horren deseroso. **Kanpainen ere VOX izan da protagonistetako bat, EAJ legez kanporatzeko asmoarekin eta Aitor Estebanen keinurekin...**

EAJk oso ondo jakin du baliatzen Aitor Estebanen keinu hori, beharbada aurretik ere pentsatuta eago zitekeen kontu bat, eta oso

ondo kudeatu dute. Elementu horrek erakusten du kanpainetan, aurretik prestatzen diren gauzetatik harago, jakin behar dela momentuari ere probetxua ongi ateratzen.

Arabako boto gutxi batzuen aldean egon daitezke laugarren diputatua eskuratzeko. Podemos, Bildu eta PP artean...

Hor egongo da zalantza. Orain Podemosen jaitziera ez dakigu zenbaterainokoa izango den eta ekuazio horretan sar daitezkeen.

"Maroto efektua" ere desagertu da.

Eta ordezkatzeko jarri dutena esango nuke ez direla gehiegi erabiltzen ari, nahiko ezkutuan dabil. Casadoren kanpainarekin lerrotatu dira eta berak erakarri dezakeen horren aldeko apustua egin dute. Zalantza daukat Marotok eraman zuena momentu honetan hautagai berriak eraman dezakeen. Boto aldaketa bat izan zen PPTik EAJra, eta sentsazioa dut mugimendu hori egin dutenek ez dutela arrazoirik bueltatzeko, estatu mailan PPren igoera izanik ere.

Zer ziklo politiko bizi du Espainiak, zure ustez? Alderdi bitasuna amaituta, ahulagoak dira alderdiak?

Orokorrean bai, alderdiekin lotutako sistema hori ahulago dago; jendartea kritikagoa da, balorazio

gutxien jasotzen duten elementuak alderdiak dira, eta, alde horretatik, badago halako atxikimendu falta handi bat. Baina gero, aldi berean, hauteskundeetan ez dago parte-hartzearen ikuspegitik alde hori. Krisi handiena zegoenean Podemos fenomenoak sortu zen, eta horrek neurri batean eutsi zion egon zitezkeen atxikimendu falta horri. Orain, berrituz, badirudi alderdi bitasun hori indartzera doala eta parte-hartzea ere maila antzekoetan ibiliko dela. Badago desgaste bat, baina alderdi politikoen artean asetuko ez duen eskaintza zehatz bat egon ez arren, "horren txarra ez dena" hautatzen du jendeak eta jarraitzen du sistemari konfiantza boto bat ematen.

Belaunaldi gazteekin konektatzen dute alderdiek?

Beti egon da atxikimendu gutxiago gazteen artean, kultura politikorekin lotuta doalako. Ez ditugu hezten gure gazte belaunaldiak politikan parte hartzeko, eta parte-hartze elektoralak adina handitu ahala hazten da; sisteman integratuago gauden neurrian, seme-alabak ditugulako, motxila propioak ditugulako gizarte honetan, hipotekak edo lan munduan... bide horiek urratzen goazen neurrian, parte-hartze politikoa ere handitu egiten da. ■■■



Artium
araba
álava

ERAKUSKETAK

Elena Mendizabal.
Eskultura
2019.11.09 > 2020.05.03
Erakusketaren inaugurazioa
2019.11.08 19:30

Muntadas.
Elkarrekiko loturak,
interconexiones,
interconnessioni
>2019.12.01

JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN
Itziar Okariz
11.13 19:00

IKASTAROA
Begirada feminista: Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorian.
Ikus programazio osoa www.artium.eus
11.16, 17

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK
MUSIKA HEDATUA
12-18 urte bitarteko
Marraski automatikorantz.
Antton Goikoetxea – Azucena Monge
11.16 17:00 > 19:00

FamiliArtium - LANTEGIA
Paper marmolatuaeren artea. **Andrea Ríos**
11.23 17:00 > 19:00

IRAKURLE TALDEA
Concha Rubio
Los asquerosos. Santiago Lorenzo
11.28 19:30

Argibide gehiago:
www.artium.eus

Truko gabeko tratuak



ITZIAR REKALDE

IPUIN KONTALARIA

Aititek eta amamak eraikitako etxearen hirugarren solairuko sarreran, aurreko horma betetzen duen kaobazko altzari handi bat dago. Izeko Isabelek Venezuelatik ekarritako musika kutxa erraldoia da. Izeko Isabel eta osaba Pedro gerraren ostean etorkizunaren bila baino, oraina ziurtatu nahian joan ziren iragana albo batera utzita. Osaba Carlosen emazteak, izeba Pilarrek, albondigarik gozoenak prestatzen zituen bigarren solairuko euren etxebizitzan, astean behin. Abisatu egiten zidan eta tximista baino arinago igotzen nintzen lehengusuekin batera bazkaltzera.

Aititek, iluntzero, hilda zeuden lagunen argazkiez betetako zapata kutxa bat ateratzen zuen bere logelaren armairutik. Banan-banan begiratzen zituen eta bakoitzari zerbait xuxurlatzen zion, batzuei gozo eta besteei ez horrenbeste. Bere ondoan jartzen nintzenean, haien pasadizoak kontatzen zizkidan. Horrela ezagutu nituen besteak beste, Patxi, Periko, Tomas, Karmentxu bere emaztea, Petra eta Antonio bere neba abadea. Amamak, gauero, lotara joan baino lehen, komedoreko mahai gainean zituen kriseiluak piztuta zeuden ziurtatzen zuen, berak bakarrik ulertzen zuen otoitza esan bitartean, eta argiztatuak geratzen ziren Argentinara joan zen eta inoiz bueltatu ez zen bere neba Fernando, bere gurasoak Juan eta Benita, gerrak ostutako Kandido semea eta Katalin bere lagun kutunena. Geurea zen lehen solairukoan, hormetan zintzilik, gurasoen ezkontzako bi argazki: handienez biok bakarrik, ama lore sorta batekin eta aita irribarretsu zeruertzera begira; bestean orduko familia osoa agertzen da. Gero, gure bataioarenak, jaunartzearenak, gurasoekin hondartzan edo txangoak egiten, ezkondu ginenekoak eta azkenean geure seme-alabenak.

Urtero bezala, jada hutsik dagoen familiaren etxera itzuli naiz, eta haurtzaroan eskailerak igotzean egiten nuen bezala, solairu bakoitzeko osaba-izebak agurtu ditut ahoz gora, aititeren zapata kutxa zabaldu dut, amamaren kriseiluak piztu ditut eta geure etxeko argazkiak begiratu ditut, ni nor naizen gogoratzeko. Den denak jasoko ditut, eta, izan direlako garenez, aurrerantzean bilobari erakutsiko dizkiot trukorik gabeko tratoan. ■■■

**KUTXA ZABALDU ETA
GEURE ETXEKO
ARGAZKIAK BEGIRATU
DITUT, NI NOR NAIZEN
GOGORATZEKO**

Herioaren hiria



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

KAZETARIA ETA IKERTZAILEA

A bendu hura bereziki gordina izan zen. Abendua eta negu osoa. 1835ean gaude, Gasteizen. Lehen Karlistaldiak bete betean harrapatu zuen Arabako hiriburua. Hotza, elurra, gaixotasunak eta gerra ziren nagusi. 10.000 biztanle inguru bizi ziren orduan Gasteizen. Gure lurraldea lehia bizian zen tropa liberal eta karlisten artean. Miguel Rikardo Alaba jenerala Espainiako kontsula zen Londresen. Jeneralak misio zehatza zuen: Ingalaterrako armada inplikatu behar zuen Isabel erreginarene alde.

Bizkitartean, Tomas Zumalakarregi jeneral karlistaren tropak Gasteiz inguruan zeuden. Miguel Rikardo Alaba nazioartean zuen ospeaz baliatu zen, baina ez zuen helburua guztiz bete. Ingalaterra ez zen ofizialki inplikatu, baina bide eman zion Britainiako Legio Laguntzaile osatzeari. Milaka batzuk batu ziren. Guztira, 8.000 boluntarioz osatutako armada zen. Gehien gehienak Londresko kantinetan zailduak ziren; ez guda-zelaietan. Horiek guztiak Gasteizera etorri ziren. Haiek, haien goi kargudunen emazteak baita ehunka prostituta ere.

Egoera horrek erabat antzaldatu zuen Gasteiz. Hiritar askok ez zuten begi onez ikusten tropa horien egonaldia gure artean. Hasiera batean, liberalen asmoa zen soldaduok etxe partikularretan sartzea. Baina ezinezkoa izan zen. Gehientsuenak egun desagertuta dauden San Francisco eta Santo Domingo komentuetara bidali zituzten. Han gaixotu eta hil egin ziren asko eta asko. Dozenaka egunero. Soilik britainiarren artean 1.200 zendu ziren, 1835eko abendutik 1836ko ekainera bitartean. Kaotikoa izan zen. Gasteiz izurritearen eta herioaren hiria bilakatu zen; gure historian inoiz izan den tragediarik lazgarriena.

Guzti horren berri zehatzagoa jaso nahi baduzue zoazte, mesedez, Zakatumba elkarteak, *Heriotzaren hiria 1835-1836* izenburupean, Antso Jakituna fundazioan (Betoño kalea 23an) antolatu duen erakusketara. Abenduaren 20ra arte duzue zabalik. Izan ere, Arabak oso kultur eskaintza zabala du. Erakusketa hau da horren lekuko. ■■■

ZOAZTE ZAKATUMBA ELKARTEAREN 'HERIOTZAREN HIRIA 1835-1836' IZENENKO ERAKUSKETARA

SAREAN

@MIRIANBITERI


#SaldaBadago

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak egin zituzten azaroaren 1etik 3ra, *Salda badago* lemapean. Egun horietan, hainbat belaunalditako 3.000 emakume inguru elkartu ziren Durangon, mugimendu feministaren egungo egoera aztertu eta etorkizunera begirako estrategiak zehazteko. Horretarako, bost ardatz izan zituzten hizpide: bizitzak erdigunean jartzea, dekolonialitatea, gorputza eta sexualitatea, indarkeriarik gabeko bizitzak eta mugimendu feministari berari buruzko eztabaida. Jardunaldiak amaituta, indarberrituta agertu da mugimendua. ■■■



**ZURIÑE
RODRIGUEZ**
@Zuriro

Horren parte izatea ohore bat izan da. Sortu dugun ekipazoa itzela. Orain mugituta bueltatzen gara, jasotakoak gure kolektiboan aztertzerara eta lanean segitzera. Eskerrik asko 3000 lagun feministei!



**IRAIDE
LEJARRETA**
@i_lejarreta

Hiru egun hauek bukatuta! Oso nekatuta gaudela ezin ukatu... baina militante feminista hauekin bidea egiteaz harro! Bagoaz etxera, ni behintzat gauza asko birpentsatzera eta pila kargatuta! Gora borroka feminista!!!



**JULE
GOIKOETXEA**
@JuleGoi

Zenbat gazte! Zenbat borrokalari historiko! Zenbat ikasteko, konfrontatzeko eta transmititzeko! Here we go!



MAITE ASENSIO
@MAensioLozano

Hiru egun hauetan Durangon bildutako indarrak, proposamenak eta aniztasunak antolatzeke eta artikulatzeko unea dator orain.



ENOXI
@IxoAroma

Ez dozue sinestuko, baina gaur Durangon usein ederra dau aspaldiko partez. Ez papelera, ez fundizino... Kinpula, zanahori, porru, gargantzu... Itzela izengo da @SaldaBadagoV! Probetako desietan!

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus



Amurriotik mundura euskara 'darabate'

Atzerako kontaketa martxan dago ekainaren 14an Amurrion izango den Araba Euskarazerako. Gasteizko Armentia ikastolan lekukoa hartu eta gutxira hasi ziren prestakizunak, eta hitzorduaren nondik-norakoak finkatzen hasiak dira. Egunotan egindako agerraldian aurreratu dute ikastolaren berrikuntza pedagogikoa indartzeko erabiliko dutela jasotako dirua; hain justu, Haur Hezkuntzako "proiektu integralaren eraldaketa" sendotu nahi dute, eta dagoeneko martxan dauden aldaketa pedagogiko horiek Lehen Hezkuntzara ere eraman nahi dituzte. Martxan duten beste proiektu bat ere indartu nahi dute: ikastolako irratia. **Argazkia: Aresketa Ikastola.**



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus

"Orain ari da memoria historikoa plazaratzen"

KOLDO ALIJOSTES 'OROIMENAREN HARRA'-KO SUSTATZAILEA

Historiako une lazgarrietako batzuk ahanzturan gera ez daitezen, eskolan lantzeko materiala prestatu dute Koldo Mitxelena institutuan.

A. AMENABAR/E. LANA O GASTEIZ

Webgune bat prestatu dute Gasteizko Koldo Mitxelena institutuan: *Oroimenaren harra*. Hezkuntza komunitatearen laguntzarekin, iraganean isilarazi eta ezkutatutako horien inguruko egia belaunaldi berriek ezagutzeko eta bilatzeko ekimena jarri dute abian.

Zergatik abiatu zenuten egitasmoa?

Ikastetxean bertan sortutako kezka batetik abiatu ginen. Kontuan

izan behar dugu gure ikasleak XXI. mendekoak direla, eta askok ez dutela ezagutzen guretzako historia hurbila diren egoera latz haiek. Horregatik, zerbait landu behar genuela pentsatu genuen. Hasiera batean, Euskal Herriari begira hasi ordez, gure ikastetxeari erreparatu genion; eskolan oroimen historikoa lantzeko materiala eskaini nahi genien irakasleei, haiek bere programan txertatu zezaten. Azkenean, Euskal

Herriko toki ezberdinetako lanak biltzen hasi ginen, eta hezkuntza komunitate osoari zabaltzea egokiena zela erabaki genuen.

Zer baliabide eskaintzen ditu webgune horrek?

Gai ezberdinak lantzen ditu, baina bi esparru dauzka. Batetik, proposamen didaktiko osatuak eta zehatzak ditugu, guk osatutakoak; besteak beste, testuak, jarduerak eta pelikulen iruzkinak egiteko ariketak. Bestetik, ahal izan dugun material guztia bildu dugu irakasleok gure proposamen pertsonalak egiteko eta bakoitzak bere programazioan sartu ahal izateko.

Ikasgai desberdinetan emateko moduko lanak daude, beraz.

Hori da. Askotan historiako ikasgaiari jartzen diogu zama guztia, baina bestelako ikasgaietara ere eraman daiteke. Esaterako, etikan balioak lantzeko oso gai aproposa da. Plastikari, filosofian edo psikologian jorratzeko unitate batzuk ere badaude, eta hizkuntza guztietan. Biltze-lana egin dugu irakasleei eskaintzen dizkiegun materialekin eta bestelako tokietan aurkitu dugunarekin. Modu horretan, aitzakia bat dago zure gaia eta memoria historikoa elkarrekin lantzeko.

Zer motako materiala bildu duzue?

Askotarikoa. Literatur lan oso ondo sailkatuak aurkitu ditugu, kasu honetan euskaraz bakarrik. Ikus-entzunezko asko dago, baita ere; tartean, filmak eta testigantzak. Tamalez, eta kuriositate moduan, Arabako ikus-entzunezko gutxi topatu ditugu. Martxoaren 3an zentratu gara, barruraino sartuta dugu, eta asko landu dugu, baina gainerakoa apur bat ahaztuta utzi dugu. Esate baterako, 1936ko gerraren inguruan liburu bat ezagutzen dut, baina ikus-entzunezkoen artean ez dut horri



Urriaren 23an aurkeztu zuten 'Oroimenaren harra' webgunea jendaurrean. ALEA.

buruzko beste ezer topatu. Bali-teke egotea, baina oraindik ez dut inondik ikusi.

Ikasleen artean gabezia al dago?

Bai. Martxoaren 3an gertatutakoa ondo ezagutzen dute, urtero lantzen dugulako, eta gainera, Zaramaga auzoa ondoan dugulako. Baina frankismoan gertatu zena ez dute gehiegi ezagutzen. Eta zenbait irakaslek ekimen propioz ekarritako pertsonak izan ditugu, frankismoan jazarriak izan direnak, baina hor geratu da dena. Gure asmoa unitate batzuk programazio barruan sartzea da, ondo zehaztuta, eta urtero egituratuta izatea, 3. eta 4. DBH-ko eta Batxilergoko mailetan.

Gabezi hori Euskal Herri osoan sumatzen da?

Baietz uste dut. Badago horrelako ekimen bereziren bat antolatzeko joera, eta, normalean, "kanpaina" egiteko ohitura badago, aste batean gai jakin bat jorrazteko ohitura hain zuzen. Baina ekimen solteetan gelditzen dira, besterik ez. Guk beharrezkoak ikusten ditugun gaiak programazioetan sartu beharko genituzke, gure ikasgaiarekin lotu eta hurrengo ikasturteetan mantentzeko. Horrek jarraipen bat emango lioke gaiari. Beste herrietan berdina gertatzen delakoan nago. Agian Gernikan, Durangon, Otxandion edo garai horiek kolpatu zituzten lekuetan gaia sakonago landu dute, baina beste toki askotan gurean bezalako hutsunea egongo dela pentsatzen dut. Dena dela, orain ari



Memoria historikoa bestelako ikasgaietara ere zabaltzeko asmoa dute. ESTI LANA O.

damemoria historikoa plazaratzen. Orain arte ez dugu ezer egin.

Nola ikusten dute ikasleek egitasmo hau? Interesa erakutsi dute?

Orokorrean, arrotza ikusten dute, baina egia da ikasle motaren arabera gertatzen dela hori. Izan ere, familia batzuetan gaia gehiago lantzen da, eta beste batzuetan ez. Adinak ere zerikusia duela uste dut. Batxilergoan, batez ere, interes gehiago nabaritzen da. DBHn batzuk oraindik noraezean dabil-tza, eta gai hauei heltzeko hobe da heldutasun puntu hori izatea, jorrazteko errazagoa baita. Dena dela, interesa badaukate; azken finean, gure historia da, eta haien historia ere bai. Gainera, familietara jotzen baduzu, ziurrenik garai hartan bititako senideren bat egingo da, aitona-amonaren bat

edo behintzat frankismoa ezagutu duena.

Noren laguntza izan duzue osatzeko?

Martxoak 3 elkarteak bere unitatea utzi zigun, eta kontaktuak ere erraztu zizkigun. Gero, gure alde-tik ere osatzen eta borobiltzen joango gara, baina irekiak gaude ekarpenak jasotzeko, noski.

Noiz jarriko duzue martxan?

Hasiera fasean gaude. Oraintxe bertan irakasle guztien artean zabaldu dugu, ikasgai guztietara. Bakoitzean zer egin daitekeen eta non ikusi behar duten, eta zer mailatan. Gero mapa moduko bat egingo dugu mailaz maila ikusteko zerbait lantzen dela. Esan dudan bezala, guretzako garrantzitsuen programazioetan gertatzea da; ez izatea aurtien egingo den kontu bat bakarrik.

HALA BEDI
TABERNA

6€
Egunero platera + albaria

OSTIRALCRO/LARUNBATCRO 21,00
VIERNES Y SABADOS A PARTIR DE LAS 21,00

HREPEAK

ENTZALADA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
DE LUNES A VIERNES

KUTXI 98 STA. MARIA KANTOIAREKIN // 945 19 88 86 // HALABEDITABERNA

Erasoen inguruko kezka zabaldu da

Otsoen erasoak Arabako mendebaldetik ekialdera zabaldu direla jaso du PPK Arabako Batzar Nagusietan aurkeztu duen agerraldi eskaera batean; abeltzainek ere ezinegona agertu dute, Urkabustaizen.



Urkabustaizko azokan jarritako kartelak. JUANMA GALLEGU

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Otsoa Arabako mendebaldetik ekialdera zabaltzen ari da, eta erasoen igoera "adierazgarria" eman da. Hori da, bederen, PPK azken asteotan hainbat udaletan eta Arabako Batzar Nagusietan aurkeztu dituen ekimenetan jaso duen datua. Hori dela eta, Nekazaritza Diputatuaren agerraldia eskatu dute, Batzar Nagusietan, bertan argitu dezan zer ekinbide hartuko dituen Diputazioak aipaturiko erasoen inguruan.

Otsoen eta txakurren erasoen inguruko ezinegona agerian utzi dute, baita ere, herrialdeko abeltzainek eta Urkabustaizko Udalak, urriaren 27an Izarran ospatu zen Abere Azokan. Bertan, abeltzainen hainbat postuetan kartelak ikusi zitezkeen, otsoaren eta txakurren erasoek ganaduzaleen bizimoduan duten eragina salatzen.

Opakuara zabaldu da

UAGA sindikatutik ALEAri adierazi diotenez, otsoaren eta txakurren erasoak ez dira inoiz eten, eta berretsi dute azken hilabeteetan Arabako mendebaldetik Opakua aldera zabaldu direla. Dena den, jakinarazi dutenez, aspaldi erabaki zuten moduan, UAGAKO abeltzainek ez dute erasoen berri ematen, gizartearen aldetik eta administrazioaren aldetik ez dutelako izan espero zuten babes, eta "onerako baino txarrerako" izaten delako, euren ustetan, erasoen berri ematea. Alta, ez dute baztertu gaiaren inguruan hitz egitea aurrerago, Batzar Nagusietan eztabaida zabalduz gero.

Eusko Jaurlaritzak otsoa mehatxatutako espezieen katalogoan "interes bereziko" espezie gisa onartu eta gero, egiteko daude oraindik animaliairen errolda eta Euskal Autonomia Erkidegoan kudeaketa plana.

Lizarralde soinua
TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ



Aguaque ur-jauzian abentura-kirolak mugatzeko eskaera egin dute. URA

Sinadura bilketa, Aguaque babesteko

Antoñanako herritarrek Sabando ibaian arroila-jaitsiera egiteko baimenak bertan behera uzteko eskatu dute.

E.UGARTE LZ DE ARKAUTE ANTOÑANA

"Arroila-jaitsiera oso ohikoa bihurtu da Sabando ibaian, eta kalte handia eragiten ari da bertan. Abentura-kiroletako enpresa batzuei baimena ematen zaie ehunka pertsona ibaitik jaisteko, eta horrek eragin larria du ibaiaren egiturari, landaredian eta faunari. Eskaera honen bidez, hain masifikatuta dauden baimen horiek bertan behera uztea lortu nahi dugu".

Change.org online plataforman jarri du Antoñanako bizilagunen talde batek eskaera, eta ingurune hori eta ur-jauzia babesteko berrehun sinaduratik gora lortu dituzte dagoeneko.

Sabando erreka Ega ibaiaren adarra da, Natura 2000 sarearen barruan dago, eta natura-interes

handiko tartea da. Errekaren ibilguan dago Aguaque ur-jauzia, Antoñanako lurretan, herritik kilometro gutxira. Bertan, abentura-enpresa ugari aritzen dira arroila-jaitsieran lehen urratsa egin nahi dutenentzat saioak antolatzen. Azken urteetan "masifikazioa" gertatu dela salatzen dute herritarrek.

Kirol jarduerari mugatzeko sinadura bilketa bultzatu duten herritarrek sare sozialetan azaldu dutenez, dagoen ezinegona aspaldi helarazi zioten Arabako Foru Aldundiari, baina bistan denez, administrazioak ez du neurririk hartu. Bitartean, haien esanetan, "eragin larria" izaten ari da kirol praktika Sabando ibaiaren ingurunean, eta baimenik gabe ere praktikatzen ari dira.

Delikako arroilan bide berde bat egokitzea onartu du Aldundiak

ERREDAKZIOA AMURRIO

Delikako arroilan ibilbide berde bat egokitzea onartu du aste honetan Arabako Aldundiak. Balgorza SA enpresari esleitu dio lanak egiteko kontratua, eta 199.427 euroko aurrekontua inbertituko du horretan. Guztira, ibilbideak 6,5 kilometroko luzera izango du, eta pertsona guztiek erabiltzeko modukoa izango da, 115 metro eskaseko malda du eta. Gainera, ibilbidearen erdia bizikletaz egin ahalko da.

Dagoeneko, mendizaleek erabiltzen duten ibilbidea egokitu du Aldundiak, hain zuzen Delikako Infierno tabernatik Nerbioiko ur-jauziaren behealderaino joaten dena. Lehenengo fase batean, sarbideak hobetu, eremu batzuen landaredia lehengoratu, sastrakak kendu, zorua egokitu, seinaleak jarri eta ibai zeharkatzeko pasabide berezi batzuk jarriko ditu.

Behatoki berri bat

Halaber, behatoki berria egokitu dute bisitariek ur jauziak elkarren segidan ikusteko. Era berean, atsedenerako eta aisiarako gune berri bat izango du Zalborondo harrizko zubiaren ondoan.

Ondorengo fase batean, 60 metro luze izango duen zubi tibetar handi bat eraikitzeko asmoa du Aldundiak; eta eraiki arte, ibai zeharkatzeko pasabide berri bat eraikiko dute. Proiektu horretan, era berean, jasota dago ibilbide hori Urduñarekin lotzeko aukera, Tertariatik zein Artomañatik.

ESANAK



IXONE FERNANDEZ DE LABASTIDA
BARANDIARAN FUNDAZIOA
Iturria: Alea.eus

"Ikerketa bultzatzea eta 'Eusko-Folklore' arlo akademikoan sartzea dira erronketako batzuk"



JAYSON GRANGER
BASKONIAKO JOKALARIA
Iturria: Radio Vitoria

"Lesioak zirela eta, saskibaloia uztekotan ibili nintzen. Asko negar egin dut horiengatik"



EIDER GARCIA DE ALBENIZ
NUTRIZIONISTA
Iturria: El Correo


"Produktu bat 'light' edo 'gabe' izateak berez ez du bermatzen osasungarria izatea"

ZENBAKITAN

Landareak




Airearen Zaindaria izeneko proiektuaren barruan, Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak 300 marrubi landare banatuko ditu hiritarren artean, hiriko airearen kalitatea neurtzeko. Landareak biomarkatzaile gisa erabiliko dituzte, metalen bidezko ingurumen-kutsadura monitorizatzeko. Balkoian hiru hilabetez mantendu ondoren, lagin batzuk hartu eta teknika magnetikoen bitartez hostoetan metatutako metal-kopuruak identifikatuko dituzte. Modu horretan landarea egon den toki zehatzaren airearen kalitatea nertuko dute. Salburuko Atarian banatuko dituzte landareak hilaren 13ra arte.



Basurdeak

Salburuko animaliak akabatzeke Gasteizko Udalak martxan jarritako arkularien programak ez ditu hasieran zehaztutako helburuak bete. Egunotan jakin denez, bide bitxi hori erabilia, orain arte hamar bat basurde besterik ez dituztela hil. Alabaina, hasierako asmoa zen lehen sei hilabeteetan 20 ale akabatzea. Udalak aitortu du bestelako aukerak aztertzen ari dela, beti ere ehizari lotuta. Halere, datorren urtarrilera arte ez dute hartuko behin betiko ebazpenik.



Langabetuak

Arabako langabetuen kopurua %4,9 jaitsi da, iazko urriko datuekin aldetuz. Guztira, 19.037 langabetu daude orain Araban, iazko urrian baino 990 gutxiago. Aurtengo irailarekin alderatuta, berriz, 83 lagun gehiago daude lanik gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira 115.341 lagun daude langabezia, 2018ko urrian baino 7.074 gutxiago (-%5,7), baina aurtengo irailean baino 1.707 gehiago. Espainiako jaitsiera %2,3koa izan da.

Jose Angel Ochoa de Eribek "azkena" izan behar duela exijitu dute

Ehunka lagun bildu ziren Gasteizen larunbatean, larriki gaixo dauden presoan askatasuna eskatzeko eta Jose Angel Ochoa de Eribe presoaren heriotza salatzen. Hirugarren graduan zegoen preso, eta gaixotasun larria zuen. Sare Herritarrak salatu du "soilik heriotza ate joka dutela ziurtatzean" ari direla askatzen larriki gaixo dauden presoak.



Gasteizen egindako manifestazioa. SARE

Ur azpian geratu ziren herriak panelen bidez gogoratuko dituzte

Aldundiak azalpen panelak jarriko ditu Urbarri-Ganboako urtegiaren inguruetan, presa eraiki eta gero ur azpian desagertu ziren herriak gogorarazteko eta horiek zeuden lekuak adierazteko. Bost panel grafiko ezarriko dira: Garioko hondartzan, Landako parkean, Mendixurko parke ornitologikoan, Urbarri-Ganboan eta Zuhatzako uhartean.

elkarrekin
PODEMOS

Juantxo
López de Uralde
KONGRESURAKO HAUTAGAIA
ARABA

GOBERNU
BAT
ZUREKIN

Gasteiz, euskararen hiriburua

Urtero bezala, abenduaren 3an izango da Euskararen Nazioarteko Eguna; eta horrekin lotuta prestatutako egitarau zabala aurkeztu dute Gasteizko euskararen arloko 16 eragilek; '#Euskaraz11' du izena programak.

ERREDAKZIOA

Hilabete eskas baino ez da geratzen Euskararen Egunerako eta eragile ezberdinak dagoeneko hasi dira egun horren bueltan antolatutako askotariko jarduerak aurkezten. Gasteizko euskararen arloko 16 eragilek, esaterako, pasa den astean ezagutarazi zuten #Euskaraz11 programa, Oihaneder Euskararen Etxean egindako agerraldian.

Aurten, programazio berezia izango da Gasteizen, ez soilik egunean bertan, baita aurreko asteetan ere. Izan ere, egun bateko ospakizuna izatetik Euskararen Astea izatera pasatu baitzen lehenik, eta gaur egun, berriz, denbora-tarte are handiagoa hartzera.

Abenduaren 3ra bitartean, Euskararen Egunerarte, urteko azken hiruhileko jarduerak barnebilduko dituen leloa *Euskaraz 1+1... Hamaika!* izango da eta #Euskaraz11 traola erabiliko dute sareetan.

Egitarau oparoa

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuak koordinatuta eta Arabako Foru Aldundiaren eta 16 eragileren laguntzarekin, Gasteizko euskaldunak aktibatzea dute helburu: "Herriarren hizkuntza- eskubideak bermatzeko lan egiten jarraitzea eta euskararen erabilera bultzatzea, bizitzaren arlo guztietan", azaldu zuten programaren aurkezpenean.



Oihaneder Euskararen Etxean egindako agerraldiaren ostean ateratako irudia. MIKEL BURUAGA

Hain justu ere, Bai Euskarari Elkartea, Arabako Bertsozale Elkartea, ZET Zabalganako Euskara Taldea, Sarburu Kultur Elkartea, Arabako Euskal Pilota Elkartea, Arabako Euskal Pilota Elkartea, Euskaraldia, Bost Urki auzo elkarte, Arabagara Topagunea, Oihaneder Euskararen Etxea, Leocadia Zabalate elkarte edo IKA, AEK, Udaberria eta Hegoalde euskaltegiak aritu dira egitarau oparoa prestatzen.

Zabalganeko Euskara Elkartek, adibidez, *Legó serious play mintzodromoa*

antolatu du azaroaren 15erako, Zabalganeko institututan; Sarburu Kultur Elkartek, berriz, kirolarekin lotutako jarduerak. Azaroaren 12an, euskal pilotari buruzko hitzaldia eskainiko du Arabako Euskal Pilota Elkartearekin elkarlanean eta hilaren 16rako, kirol jarduera horrekin lotutako saioak eta tailerrak prestatu ditu umeentzako zein helduentzako, Astronomos trinketean. Bost Urki auzo elkarteak ere euskarazko hainbat jarduera egingo ditu



azaroaren 18tik 23ra b itartean, Lakua Arriagan.

Kantari eta Irakurraldia

Gaztetxoan artean euskarazko kantuak sustatzea helburu duen Kantari ikuskizunak ere ez du huts egingo aurtengo programazioan. Aurreikuspen guztiak hautsi ditu beste behin, 137 taldetan banatutako 622 neska-mutikok eman dutelako izena; zoritxarrez, baina, 84 taldek baino ezin dute parte hartu eta zozketa bidez egin izan da aukeraketa. Parte-

"OHIKO KALEJIRA ETA KANDELEN MOSAIKOAZ GAIN, HAURRENTZAKO SAIOA DUGU AURTEN"

AZAITZ UNANUE (GEU ELKARTEA)

"EUSKALGINTZAKO ELKARTEAK KONTUAN HARTUTA EGIN DUGU EUSKARAREN AGENDA"

IÑAKI GURTUBAI (GASTEIZKO UDALA)

"EUSKARAZ ARITU GAITEZEN GAU, EGUN ETA EDOZEIN HITZORDUTAN"

LEXURI UGARTE (ARABAKO DIPUTAZIOA)

hartaileek asteak daramatzate abestiak prestatzen, eta asteburu honetan, entsegua izango dute. Saioen grabazioak, berriz, azaroaren 16an eta 17an egingo dira Dendaraba aretoko agertokian.

Bestalde, aurreikusita dauden ekintzen artean aipatzekoa da abenduaren 3rako ALEA prestatzen ari den Irakurraldia. Arabako zazpi idazleek idatzitako testuak irakurriko dituzte hainbat arloko ordezkariak; emanaldia Oihanederren izango da, 10:00etan. ■■■

Programazioa

- **Azaroak 6-15:** 'Zabalganan eragin txaramelari'. Zabalgana Euskara Taldea.
- **Azaroak 11-16:** 'Salburuan keinua kirolari!'. Sarburu Kultur Elkarte.
- **Azaroak 16-17:** 'Kantari 2019-Gasteiz'. GEU, ALEA eta Goiena.
- **Azaroak 18-23:** Lakua Arriagan hainbat jarduera euskaraz. Bost Urki auzo elkarte.
- **Azaroak 26:** Elkarrizketa musikatua. Topagunea.
- **Azaroak 27:** 'Xare, euskarazko kultura digitalaren jardunaldiak'. Oihaneder Euskararen Etxea eta Eusko Jaurilaritza.
- **Azaroak 28:** 'Mintzodromoa'. Bai Euskarari Elkarte.
- **Azaroak 28:** 'Izan zaitez neu kontzertua', Gari, Anari, Jon Basaguren eta Liberekin. Jimmy Jazz aretoa eta Leocadia Zabalate elkarte.
- **Abenduak 3:** Arabako hainbat idazleek idatzitako testuen 'Irakurraldia'. ALEA.
- **Abenduak 3:** Haur eta gazte literaturaren itzulpen sarien banaketa; eta, jarraian, erakunde adierazpena. Gasteizko Udala.
- **Abenduak 3:** 'Abdon Gonzalez de Alaizaren alfabetoa eta Txistu komikia'. Arabako Foru Aldundia.
- **Abenduak 3:** Kalejira Oihanederretik Andre Maria Zuriaren plazaraino eta han Kandelen mosaikoa egingo da. Geu elkarte.

"Gauza asko desdemonizatzen lagundu dit antzezlan honek"

EDURNE AZKARATE AKTOREA


A.AMENABAR/ E. BEGIRISTAIN GASTEIZ

Luhuson (Lapurdi) egin zuten estreinaldia, eta Euskal Herriko hamaika txoko bisitatuko ditu hurrengo asteetan *Zaldi urdina* antzerki lanak; besteak beste, Gasteizen izango da azaroaren 19an. Dejabu, Axut eta Artedrama konpainien eskutik, heroina eta drogen inguruko trama daramate taula batetik bestera. Eta zazpi aktore artean, Edurne Azkarate (1993, Oion) arabarra, Alea FM saiotik igaro berri dena.

Denok lotzen dugu heroina "zaldia" hitzarekin, baina zer da "zaldi urdina"?

Izen hori erabiltzen dugu droga berri bat definitzeko, heroina ere badena, baina eguneratua eta etorri diren molde eta kontsumo ezberdinekin. "Zaldi" hitzak badauka iraganaren oihartzun bat, eta obran ere harreman hori izango du, zaldi urdinaren bila ibiliko bagara ere, bidaia hori egingo dugu 80. hamarkadan gertatu zenari begiratzeko.

Justo Arriolaren 'A los pies del caballo' liburua izan du oinarri obrak, ezta?



'Zaldi urdina' obraren kartela. ALEA

Nahiz eta ez den antzezlan bat historikoa, antzerkiak beti balio izan du memoria egiteko, eta oso presente daukagu oso ondo dokumentatu behar dugula kontatu nahi dugun hori. Gure ustez, oraindik gehiegi jorratu ez den gai bat ekarri nahi genuen taulara; agian Euskal Herrian izan den azken sarraskia. Nahiz eta familietan gorde edo ez den guztiz azaleratu, garrantzitsua izan da gizartean. Gure herrian duela oso gutxi gertatu zenez, hori dokumentatzeko asmoz, hainbat liburu eta dokumenturen bitartez hori

guztia mamitzen eta ikertzen saiatu gara, oholtzara eramaten duguna ahalik eta zintzoena izan dadin.

Elkarlanean sortutako gidoia da, ezta? Nolako izan da prozesua?

Lehenengo dokumentazio lana denen artean egin genuen. Ideia lehenagotik etorri zen zuzendaritzatik eta hiru konpainia hauek daukaten harremanetik. Gure ikerketen ostean, komunean jarri genuen guztia eta entseguen hasi ginen; idazleek, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak, proposatutako pertsonaia batzuetatik abiatuta inprobisatu genuen, eta gure ikerketetatik izan genituen ideiak eta gogoetak oholtzaratu genituen. Ondoren, hori idazleei erakutsi, musikariei, jantzitegikoei... sortzaile horiek gure materiala hartu, hilabete batzuetan jorratu eta bueltatu ziguten. Idazleek ikusi zuten nola eraldatu zen beraiek lehenago proposatutakoa, eta guk nolabait hori handitu edo bilatu genizkion ertzak... gero haiek pare bat hilabetez lan berdina egin eta bueltatu ziguten. Hartu-eman mota hori



Azaroaren 13an izango da 'Zaldi Urdina' obra Gasteizen; Edurne Azkarate izango da aktoreen artean. EITB

izan da prozesuan. Horrek ematen duena da, alde batetik, antzezlanaren guztion izatea, eta, beste alde batetik, guztion artean geruzaz geruzaz obra poliedrikoagoa sortzeko aukera izatea.

Zure belaunaldiak nola bizi du heroinarekin gertatutakoa?

Hein batean gertukoa suertatu zait, orain arte gaia tabu izan den arren beti entzun dugulako heroinaren garrantzia eta arriskua. Badaude familia istorioak, beti dago ezagunen bat, beti jakin duzu 80. hamarkadan zerbait potoloa gertatu zela... Droga sintetikoak edo beste mota bateko drogak egin ziren famatuago gure garaian, heroina alde batera utzi nahi horretan, *a priori* ez hain arriskutsuak, itxuraz behintzat. Beldurrak ezezagutzara eraman gaitu, edo jakin nahi ez izatera, "umek ez badute horren berri, hobeto...". Prozesu honek asko lagundu dit justuki desdemonizatzen gauza asko, informazioa bilatzeko eta lasaitasunez gai hau planteatu ahal izateko; horretaz kulparik gabe pentsatu ahal izateko.

"LUXU BAT DA AKTOREOK AKTORE LANETAN KONTZENTRATUTA EGOTEA BAKARRIK"

Bereziki interesgarria izan daiteke obra hau belaunaldi gazteentzat, ezta?

Interesgarria da, eta, hain zuzen, gure konpainiek dossier pedagogiko bat prestatu dute hori jorratzeko, irakasleekin ere lantzeko. Azken finean, bada modu bat gazteak antzokietara hurbiltzeko, beraietaz ere hitz egiten delako. Belaunaldi pila bat agertzen dira agertoki gainean, adin guztiek topatu dezakete isla pertsonaia batean edo bestean.

Nolakoa da, aktore batentzat, halako antzerki produkzio handi batean lan egitea?

Luxu bat. Antzezlan bat aurrera eramateko lan mordoa egin behar da, diru laguntzak behar dira, langile pilo bat gara, eta hori artistikoki ere eskertzekoa da. Hori guztia gauzatzeko bagaje handi bat behar da, eta

berme bat daukaten konpainiak. Alde horretatik, lujo bat da aktoreok, gezurra badirudi ere, aktore lanetan kontzentratuta egotea bakarrik. Bestalde, hainbeste aktore ezberdin oholtzan edukitzeko aukera izatea ere oso aberasgarria da, bai pertsonalki eta baita profesionalki ere. **Zerk eraman zintuen antzerkira? Noiz hasi zinen aktore lanetan?** Egia esan, nerabezarotan buruan sartu zitzaidan ideia izan zen. Bulkada horri kasu egin gabe ezin nintzen pasa, eta ikasketak antzerkira bideratu nituen. Engantxatu ninduen, hartu ninduen, eta hemen geratuko naizela dirudi. Oso aberasgarria da, alor asko ditu antzerkiak, eta bizitza osoa eman dezakezu horiek deskubritu nahian. Oso zaila da hemendik irtetzea. **Telebistan ere aritu zinen Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko 'Aulki jokoa' saioan.** Hori ere probatu behar zen, eta, egia esan, oso esperientzia onak izan ditut Euskal Telebistan, batez ere oso ondo pasa dudalako eta elkarrizketa pila bat egin ditudalako. ■

PrEP pilula

SEXUALITATEA



EMAIZE

Azaroaren 1etik aurrera hiesaren birusaren prebentziorako pilula (PrEP) eskainiko zaie "arrisku talde" barnean kontsideratuak dauden pertsonei: gizonezkoekin harreman erotikoak dituzten gizonei, transexual eta langile sexualei.

Hauek arrisku taldeak dira infekzio portzentaje altuagoa ematen delako beraien artean; honek, ordea, ez du esan nahi kolektibo horietako guztiak arriskuan daudenik, ezta beste taldeetakoak libre daudenik ere. Zintzoak izanik, "arrisku praktikekak" esan beharko genituzke, nork baino, zer eta nola egiten den duelako garrantzia. Aipatutako taldeetan praktika arrakatsuak portzentaje altuagoan eman ohi dira eta ondorioz, infekzioak ere.

PrEP pilula hartuta, hiesaren birusarekin kontaktua izatean ia erabateko arrakastarekin kutsatzea saihestuko du. PrEP hartzen dutenak ondorio latzenak dituen genital bidezko infekzioaren aurrean babestuta egongo dira, baina sifilis, gonorrea eta klamidia bezalakoek kondoia izango dute ezinbesteko babeserako baliabidea.

Medikamentu honen erabilzaileek azterketa medikuak izango dituzte hartzen hasten direnean, ondorio ezkorren bat ematen den kontrolatzeko, eta ondoren hiru hilabete behin. Modu honetan, hiesaren birusa



ALEA

ekiditea lortu dela ziurtatu eta bestelako infekzioen bat emango balitz azkar detektatuko eta beharrezko tratamendua jarriko litzateke beste pertsonei infektatzeko katea moztuz.

Pilula hau aspaldi eskaintzen ari dira beste leku batzuetan eta preserbatiboaren erabilera jaitsiko zuela aurreikusi zuten. Azken hamarkadatan hiesari beldurra kendu diogu eta kondoia erabilera jaitsi da, baina ez da frogatu pilularen erabilerekin zerikusia duenik. Gurean egoera berdinean gaude,

IZURRITEAREN HEDAPENA GELDITZEKO PAUSUA DA HIESAREN PREBENTZIORAKO PILULA

eta ez da pilula orain arte eman. Arriskua duten praktika erotikoak egiten dituztenek pilula hartzen badute kontrol mediku altua dute, lehen medikura joaten ez zirenak zerbitzura hurbilduko direlako.

Joko erotikoez gozatzeko eta elkarrekin plazera sentitzeko helburua dute eta arriskuak murrizteko eskura ditugun neurri guztiak jarri beharko genituzke martxan: preserbatiboa, hiesaren birusaren froga azkarra, PrEP pilula eta ahaztu ezin dugun baliabide eraginkorra: sexuen heziketa.

Neurri hauekin guztiekin infektatuen kopurua murriztu eta egun hiesarekin bizi direnen kopurua handitzen ez jarraitzea lortuko dugu. Izurritearen hedapena gelditzeko pausua da PrEP. ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

Hemen da Bertxoko

BERTSOLARITZA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertxoko, izkin eta zoko denak bertsoz erotzeko sortutako irratsaio eta sariketa ezberdin bat.

Bagare sariketaren oinordeko, 2007an sortu zen Bertxoko sariketa. Asteazkenero, 20:00etatik 21:00etara, Hala Bedi irratiaren ematen den Bertxoko irratsaioa gidatzen zuten esatari eta inguruko bertsolari gazte talde bat elkartu eta merkatuko osagairik freskoekin osaturiko menu gazi-goza prestatzeari ekin zioten: bertsolari gazteak, arabarrak, arabartu, zein inguruko lagunak, umorea, lehia, ariketa zelebreak, agur bitxiak, errima zoroak, mozorro, abilezia, afari goxoak, txoko epelak eta publikoaren zein epaile trebatuen berediktua. Guzti hori eta gehiago da Bertxoko sariketa, denei eta denari tokia egiten diona.

Hala, Arabako Bertsozale Elkartea eta Hala Bedi irratiaren arteko lankidetzak bultzatu du sariketa gaurdaino, urteren batean sariketak deskantsu eta lugorria behar izan badu ere, aurtengoa hamargarren edizioa dugu.

Aramaion, hasiera

2019an ere Arabako hainbat herrik pairatuko dituzte sariketaren ondorio, igurtzi eta sufrikarioak. Azaroaren leian eman zioten hasiera; Aramaioko Zabola elkartearen



Aramaion bost lagun aritu ziren kantuan; Martin Abarrategi sailkatu da finalera. ABE

elkartu ziren hogeita hamar bat lagun mokadua hartu eta saioaz gozatzeraz. Kantuan bost lagun, Egoitz Iradier gai emailearen gidaritzapean: Markel Yoller, Eli Zaldua, Unai Anda, Danel Herrarte eta publikoak hala

DENERA, HAMAIKA BERTSOLARI, BI KANPORAKETA, ETA FINALA AZAROAREN 21EAN IZANGO DA

erabakita, dagoeneko finalera sailkatu den Martin Abarrategi.

Bigarren kanporaketa azaroaren 8an izango da Zalduondoko Zeledon txokoan iluntzeko 20:00etan.

Bertan Aroa Arrizubieta, Aitor Najera, Eukene De Los Aires, Maddi Agirre, Xabi Antia eta Mikel Martin lehiatuko dira.

Denera hamaika bertsolari, bi kanporaketa eta azaroaren 21ean, Gasteizko Hala Bedi tabernan, egingo den lauko final handia. Has dadila norgehiagoka! ■■■

Arabán da, baina... zer izen du irudiko dorreak?

IKA EUSKALTEGIA



ALEAren irakurle guztiokin partekatu eta guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Arabán da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Datozen asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai ALEA aldizkarian. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzuenon artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun euskaltegien arteko finalean. ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

Irabazleak:

Florida zinemarako sarrerak: Nerea Larrazabal Lazkano.

Museo del Organo jatetxean bazkaria: Mila Zabala Markuleta.

'Zaldi Urdina' antzezlanaren ikusteko sarrerak: Koldo Markinez eta Mertxe Saez de Gordo.



Gorbeia zinemarako Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk.

Parte hartu azaroaren 20a baino lehen; azaroaren 22ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



'Izan zaitez neu' kontzertua Bi sarrera

Garik, Libek, Anarik eta Jon Basagurenek kontzertua eskainiko dute Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, azaroaren 28an, 20:00etan.

ALEAk bi sarrera solte zozkatuko ditu. Leocadia Zabalate elkarteak antolatutako kontzertuaren sarrerekin lortutako dirua ENACH elkartera bideratuko da. Parte hartu hilaren 20a baino lehen; azaroaren 22ko ALEAn publikatuko ditugu irabazleak.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA Azaroaren 8tik 14ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

BERTSOLARITZA

KANPEZU Plaza librea

Kalez kale, Oihana Bartra eta Julen Zulaika bertsolariekin.

Larunbata 9, 11:00etan, plazatik abiatuta.

GASTEIZ 'Bertsoientzia'

Bertsoientzia saio berezia. Julio Soto eta Jone Uria bertsolariekin.

Larunbata 9, 19:00etan, Bibat museoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ Bakarrizketa

Jose Cruz Gurrutxagarekin.

Ostirala 8, 19:00etan, Zabalgana auzoko gizarte etxean.

HAURRAK

GASTEIZ 'Nor zara?' ipuina

Kiliklon taldearen eskutik. 4-8 urte bitartean.

Larunbata 9, 11:00etan, Arriaga gizarte etxean.

ONDATEGI 'Etzerik txikiena' antzerkia

Yarleku taldearen eskutik. 6 urtetik aurrera.

Larunbata 9, 19:00etan, Zigoitia aretoan.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Gure bizipoza, guztiona'

Anabel Arraizarekin. Bizipoza



KORRIKA 21

GASTEIZ 'Txillardegiren klika'

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-ren inguruko saio bikoitza. 21. Korrikarako eginiko dokumentala eta EHUK eta Jakinek argiratutako liburua, Txillardegi. Batasunaren pentsalaria. Kote Camacho eta Miren Rubiorekin izango da solasaldia. *Asteazkena 13, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxea.*

elkartearen aurkezpena; pertsona guztien eskubideak bermatuko dituen Euskal Herri inklusiboa eraikitzen laguntzea du xede.

Osteguna 14, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

GASTEIZ Joxean Agirre

Patxi Zubizarretak aurkeztuta, Joxean Agirre idazlearekin solasaldia literatur sormenaren inguruan.

Asteazkena 13, 19:00etan, Hegoalde gizarte etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Horma-irudia

Horma-irudia margotzeko ideiak jasoko ditu Bost Urki auzo elkarreak.

Ostirala 8, 17:30ean, Arriagako kiroldegian.

GAUBEA Gaubeako Irakurle Kluba

Iban Zalduaren *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak* ipuin-bildumaren inguruko solasaldia.

Ostirala 8, 18:30ean, liburutegian.

Jimmy jazz gasteiz **AZAROA**

08 - 09 GASTEIZ CALLING 2019

- SHELTER - NATIONS ON FIRE - DEVIL IN ME
- DEATH BY STEREO - FEARS AWAY
- COCKNEY REJECTS - THE EXPLOITED
- THE PARTISANS - MAID OF ACE - BRIGADE LOCO

Os. 15 FRANK CARTER & THE RATTLESNAKES + KID KAPICHI

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

LEGOEKIN
KOMUNIKAZIOA
LANTZEN

FAMILIA IRTEERA

AZAROAK 25, ASTELEHENA

17:30-19:30

- HABILITAS EDUCACION -

Giza eskubideen hiribidea, 13-15
(Zabalgana)



Prezioa:

5€ familiako

(7-11 urte)



IZENA EMAN:

dalbeniz@geuelkartea.eus

688 734 941

Info+: www.geuelkartea.eus

*Euskaraz komunikatzeko gutxieneko gaitasuna beharrezkoa da



**Iñaki
berriro** ehbildu

BAIETZ!